



**URODINAMIKA
URODINAMICA**

ZER DA PROBA HAU?

Azterketa urodinamikoan helburua da maskuria eta esfinterrak nola dabilzan jakitea: gernua biltzeko eta kanporatzeko ahalmena. Horretarako, maskuria likidoz betetzen da, uretrako zunda baten bidez, eta betetzean eta hustean maskuria nola dabilen aztertzen da.

ZER EGIN PROBA PRESTATZEKO?

- Erraz jantzi eta erantzeko arropa ekarri behar da.
- Proba egin aurreko gauean, ipurditik garbitasunenema bat jarri behar duzu. enema kontsultan emango dizute aldeaz aurretik.
- Txiza egiteko gogo handia ekarri beharko duzu; horretarako, ura edan behar duzu zita-aurreko 2 orduetan zehar (2 edo 3 edalontzi).
- Proba egin aurretik, gosaldu egin behar duzu.
- Urodinamika egin baino 1 ordu lehenago, agindutako antibiotikoa hartu behar duzu: Ziprofloxazino 500 mg-ko 1 konprimitu (medikamentu honi alergia izanez gero, Zinnat® 500 mg-ko 1 konprimitu hartu behar da, haren ordez).

NON EGITEN DA PROBA?

AUOren Kanpo-kontsultetako 7. solairuan (Urologiako kontsultan).

Probaren emaitza eskatu zuen medikuari bidaliko zaio, edo eskura emango dizute, zeuk medikuari emateko.

NOLA EGITEN DA PROBA?

- Kabina batean biluztu eta mantala eta kaltzak jantzi behar dituzu.
- Zunda bat jarriko dizute gernuaren hoditik (uretratik) eta beste bat uzkitik. Likidoa bidaliko da gernumaskurira, uretrako zundatik zehar, presioa eta maskuriaren ahalmena neurtzeko.

Proba bera ez da mingarria, baina ondoeza eta lotsa sorraraz ditzake.

Probaren iraupena 30-40 bat minutukoa da.

ZER EGIN PROBAREN ONDOREN?

Ez duzu ezer berezirik egin behar. Betiko bizimodua egin dezakezu.

¿EN QUE CONSISTE LA PRUEBA?

Los estudios urodinámicos se realizan para conocer como funcionan la vejiga y los esfínteres, en relación a su capacidad de almacenamiento y evacuación de orina. Consiste en rellenar la vejiga de líquido a través de una sonda uretral y comprobar el comportamiento de la vejiga al llenarse y vaciarse.

¿CÓMO PREPARARSE PARA LA PRUEBA?

- Deberá traer ropa fácil de quitar y poner.
- La noche anterior a la prueba, deberá ponerse un enema rectal de limpieza que se le proporcionará en la consulta.
- Deberá acudir con bastantes ganas de orinar, para ello deberá beber agua (unos 2 ó 3 vasos) en las 2 horas previas a la cita.
- Deberá desayunar antes de venir a realizar la prueba.
- Deberá tomar el antibiótico que le hayan indicado 1h. antes de la Urodinámica: 1 comprimido de Ciprofloxacino 500 mg. (en el caso de que sea alérgico a éste medicamento, lo sustituirá por 1 comprimido de Zinnat® 500 mg)

¿DONDE SE REALIZA LA PRUEBA?

En la 7ª Planta (Consulta de Urología) del HUA-CCEE.

El resultado de la prueba se enviará al médico que la solicitó, o se le dará en mano para que Ud. lo entregue a su médico.

¿CÓMO SE REALIZA LA PRUEBA?

- Se deberá desnudar en una cabina y se pondrá bata y calzas.
- Se le colocará una sonda por el conducto de la orina (uretra) y otra sonda por el ano. A través de la sonda uretral, se hará pasar líquido a la vejiga urinaria para medir la presión y la capacidad de la vejiga.

La prueba no es dolorosa, aunque puede ser algo molesta y pudorosa.

La duración de la prueba se estima en 30-40 minutos.

¿QUÉ HACER DESPUÉS DE LA PRUEBA?

No tiene que hacer nada especial. Puede hacer vida normal.